

Jaun andreok:

Nire lehenengo hitzak Euskaltzaindiari eskerrak emateko izan behar dute, noski.

Egunean eguneko lana besterik ez dudala egin, esango nuke –horretara iritsi banaiz– eta, besterik gabe, eguneroko lan horregatik ohorezko euskaltzain izendatu nau. Eskerrak, ba, berriz ere.

Alde batetik, Euskaltzaindian eroso sentitzen naizela, esango nuke. Oso gazte nintzela ezagutu nuen Euskaltzaindia; agian zuen arteko batzuk ez duzue ezagutu Euskaltzaindia biltzen zen bulegoa, gero “Serminario de Julio Urquijo”k erabilitakoa, Donostian, Diputazioaren Jauregian.

Han egiten ziren bilerak, denak edo asko behintzat, nire aita Euskaltzainburu zela, 1952tik 1963ra, eta hara joaten nintzan eguardian, bilera egunetan, aitaren bila.

Ordu laurden bat itxaron, beste ordu laurden bat, ordu bat ere pastasen zen batzutan eta halako batean hasten ziren irtetzen, poliki poliki eta eztabaidan oraindik.... Nazario Oleaga, Federico Krutwig, Antonio Arrúe, Lekuona, Villasante, Mitxelena, Alfonso Irigoyen... eta behin edo behin, ez beti, Iparraldekoak, Pierre Lafitte, Louis Dassance etab. Denak zerbait esaten zidaten: asko itxaron behar izan duzu gaur... etab. Ni irakurtzen edo Jose Antonio Esnozekin hizketan egoten nintzen aldameneko gelan, Beraz, Euskaltzaindia etxekoa sentitzen dut.

Baina Euskaltzaindia, ni bezala, hazi egin da. Orain organigramez, batzordeez, sailez, proiektuz eta argitalpenez beterik dago. Egoitza ere handitu da, eta ni gero eta txikiagoa sentitzen naiz haren aldean.

Zer egin?

Egia esan, ez nau asko kezkatzen.

Lanean jarraitu, al dudan neurrian. Oraindik Atlasa pixkat zaindu behar dugu plazaratu arte -orain esan didate lehen bi aleak prest daudela-zuzenketa batzuk; eta atsegin zaidan beste lan bat ere badut: Nafarroako Unibertsitateak eskatu zidan lan bat: Fundatzailearen liburuak euskaratu. Bi baizik ez ditut euskaratu orain arte, beraz, horretan jarraituko dut.

Bi hauek, Euskaltzaindiari eskaini nahi dizkiot orain, Bibliotekarako, nire eskerronaren adierazgarri.

Ana Etxaide